

# EUSKAL-ERRIA

(On Antonio Arzac-i)

Mendi tartean dagon  
leku pozgarriya,  
gozamenkai eztitsu  
denaren tokiya;  
zerutik puskacho bat  
onuntz eroriya  
eta Jainkoak bertan  
mesedez utziya  
esan liteke dala  
gure sorterriya.  
Argidotar askoren  
lur maitagarriya  
illezkorra da bere  
kondaira garbiya.

Zure baso, zelai ta  
gandor mirariyak  
ikustez ezin dira  
aspertu begiyak;  
emen, erreka choko

atsedengarriyak,  
or zumardi galantak,  
an lorategiyak  
usai fiñez orditzen  
inguru guztiyak.  
¡Betiko izan deiela  
euskaldun mendiyak!

Sakontasun polita  
likurtaz betia  
erezi samur eta  
otoitzen kabia;  
ibar oparotsuak,  
kerizpe geldia,  
baserrichoak nunai  
ta nunai pakia;  
mendi gaiñ bakoitzean  
chabola chikia,  
artalde bat ondoren,  
gero.... ¡gurutzia!

EMETERIO ARRESE.